

## **U HOLDE-PREBENTZIOKO ARDURADUNA. 2019KO TESTA**

|                  |                      |
|------------------|----------------------|
| ERANTZUN ZUZENA: | 1 PUNTU              |
| ERANTZUN OKERRA: | -1/3 PUNTU           |
| DENBORA:         | Ordu bat eta laurden |

---

### **1. Zein da Uholdeen arriskuak ebaluatzeko eta kudeatzeko zuzentaraua?**

- a) 2000/60/EE
- b) 2007/60/EE
- c) 2005/60/EE
- d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

### **2. Zeintzuk dira plangintza hidrologikoaren eremuak Euskal Autonomia Erkidegoan?**

- a) Kantauriko Demarkazio Hidrografikoa, Ebroko Demarkazio Hidrografikoa eta EAEko Barneko Arroak.
- b) Ebroko Demarkazio Hidrografikoa eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa.
- c) Kantauri Ekialdeko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoak.
- d) Ebroko Demarkazio Hidrografikoa eta Kantauri Ekialdeko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoak.

### **3. Zerri dagokio ekainaren 23ko 1/2006 araua?**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legeari.
- b) Estatuako Uraren Legearen Testu Bateginari.
- c) Euskal Herriko Ingurumena babesteko Lege Orokorrari.
- d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

### **4. Donostiako Martutene auzo parean, Urumea ibaiaren jabari publikoan obra bat baimentzeko, zein da administrazio eskuduna?**

- a) Uraren Euskal Agentzia, URA.
- b) Estatuaren Itsasertz Mugartea.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundia.
- d) Kantauriko Ur Konfederazioa

**5. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak:**

- a) Autonomia-erkidego bakoitzaren esparruari dagozkio.
- b) Euskadin bi daude: Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdekoak.
- c) Haien lurralde-eremua eta plan hidrologikoen bat datoz.
- d) Zuzenak dira b) eta c) erantzunak.

**6. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:**

- a) EAEn lurralde osoa erkidego arteko demarkazio hidrografiko bakarrean dago sartuta.
- b) EAEn lurralde osoa erkidego barneko demarkazio hidrografiko bakarrean dago sartuta.
- c) EAEn lurraldea bi demarkazio hidrografikotan dago banatuta.
- d) EAEn lurraldea hiru demarkazio hidrografikotan dago banatuta.

**7. Zer alde dago ebapotranspirazio potentzialaren eta ebapotranspirazio errealaren artean?**

- a) Bat ere ez. Kontzeptu baliokideak dira.
- b) Potentziala ereduaren arabera kalkulaturikoa da, eta errealak, instrumentazio bidez zuzenean neurtutakoa.
- c) Hezetasun nahikoa badago gerta daitekeena da potentziala, eta eremuko hezetasun-egoerari dagokiona da errealak.
- d) Potentziala ebapotranspirazio handieneko urteari dagokiona da, eta errealak, berriz, urte jakin bati dagokiona.

**8. Teknika hauetatik, zein ez da aplikagarria ibaien emariak neurtzeko?**

- a) Edukiera, errotatxoaren bidez
- b) Ultrasoinuen emari-neurgailu bat erabiltzea.
- c) Edukiera grabimetrikoa.
- d) Edukiera, trazadoreen bidez.

**9. Erliebe hauetatik, zeinek dauka osaera granitikoa?:**

- a) Aizkorrik.
- b) Gorobel mendilerroak.
- c) Jaizkibelek.
- d) Aiako haitzek.

**10. Zer da ofita?**

- a) Kareharri xehatua.
- b) Higadurak, garraioak eta sedimentazioak berez sortutako legarra.
- c) Arroka azpibolkanikoa.
- d) Edozein balasto-mota.

**11. Euskal Autonomia Erkidegoan uholde-arriskuen kasuan aplikatu behar den araudia kontuan hartuta, zein da, legez, uholde-eremuaren muga?**

- a) Ohiko gehieneko ur-goraldiena.
- b) Lehentasunezko fluxu-eremuarena.
- c) 500 urteko errepikatze-denborako uraldiarena.
- d) Dokumentatutako uraldi historikoena edo, halakorik ezean, 100 urteko errepikatze-denborako teorikoarena.

**12. Parshall estazioaren bidez, zer neurtuko dugu?**

- a) Presio-hodietako emaria.
- b) Kanal irekietako emaria.
- c) Azpi-presioko drainen presioa
- d) Manning koefizientea.

**13. Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren arabera, hauetatik zein ez da Uraren Euskal Agentziaren eginkizuna?**

- a) EAEko Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- b) Lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimena ematea.
- c) Saneamendu-sistemak kudeatzea eta ustiatzea.
- d) Uholde-arriskugarritasuna duten guneeetan, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatze aldera, beharrezko jotzen diren erabilera-mugak jartzeaz Jaurlaritzari proposamena egitea.

**14. Hauetatik zein unitate hidrografikok osatzen du erkidego barneko arro bat?**

- a) Oka unitate hidrografikoak.
- b) Ibaizabal unitate hidrografikoak.
- c) Urumea unitate hidrografikoak.
- d) Baia unitate hidrografikoak.

**15. Plangintza Hidrologikoaren helburu dira honako hauek:**

- a) Uholdeetatik eta lehorteetatik babestea.
- b) Eskualde- eta sektore-garapena orekatzea eta bateratzea.
- c) Zer ur-kantitate dagoen eta zenbat behar den balioestea.
- d) Horiek guztiak Plangintza Hidrologikoaren helburu dira.

**16. Hauetatik zein ez da Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren helburu?**

- a) Iragartzeko gaitasuna hobetzea uraldi- eta uholde-egoeretarako.
- b) Uholde-arriskuguneetan, lurralde-antolamendua eta esposizioaren kudeaketa hobetzen laguntzea.
- c) EAEko presen larrialdietako planak idaztea.
- d) Arriskua gutxitu dadin lortzea, arriskugarritasuna gutxituta.

**17. Zer da SCADA bat?**

- a) HUA bateko amaierako efluentearen desinfekzio-sistema bat, isuri aurretik.
- b) Ur-ibilgu baten maila neurtzeko tresna, radar-teknologian oinarritua.
- c) Hiri-hornidurako uraren kalitatearen parametroak neurtzeko tresna.
- d) Sistema bateko datuak gainbegiratzeko, kontrolatzeko eta eskuratzeko aplikazio bat.

**18. Plan hidrologikoek honako hauek identifikatu eta zehaztuko dituzte:**

- a) Ur-masa kontinentalak, lurgaineko nahiz lurpeko urak barne hartuta.
- b) Lurgaineko ur-masak, kontinentalak nahiz kostaldeko eta tartekoak, eta lurpeko ur-masak.
- c) Ibaiak, lakuak, hezeguneak, tarteko urak eta kostaldeko urak.
- d) Lurgaineko ur-masak.

**19. Ibai kategoriako ur-masen egoera zehazteko, honako hauek aztertzen dira:**

- a) Adierazle kuantitatiboak, kimikoak eta fisiko-kimikoak.
- b) Adierazle kualitatiboak, kimikoak eta fisiko-kimikoak.
- c) Adierazle biologikoak, hidromorfologikoak, kimikoak eta fisiko-kimikoak
- d) Adierazle biologikoak, kimikoak eta fisiko-kimikoak.

**20. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen berrikusketa osoa eta aldizkakoa, zenbatean behin egiten da, oro har?**

- a) Bost urterik behin.
- b) Sei urterik behin.
- c) Zortzi urterik behin.
- d) Hamar urterik behin.

**21. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan uraren plangintza eta kudeaketa modu koordinatuan egiten da. Nork egiten du?**

- a) Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoek.
- b) Estatuko Administrazio Orokorrak, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoak, Uraren Euskal Agentziaren bitartez.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoak.
- d) Estatuko Administrazio Orokorrak, bere konfederazio hidrografikoen bitartez.

**22. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari buruz, zein da erantzun zuzena?:**

- a) Nazioarteko izaera du, Errobi ibaiaren arroa mugaz gaindikoa baita.
- b) Nazioarteko izaera du, Bidasoa, Errobi eta Urdazuri ibaien arroak mugaz gaindikoak baitira.
- c) Ez dauka nazioarteko izaerarik.
- d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**23. Adierazi erantzun zuzena Plan hidrológikoei eta uholde-arriskua kudeatzeko planei buruz:**

- a) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie.
- b) Plan hidrológikoei ez zaie ingurumen-ebaluaziorik egin behar, ingurumen helburuak baitituzte funtsean. Uholde arriskua kudeatzeko planei, ordea, bai egin behar zaie ingurumen-ebaluazioa.
- c) Plan hidrológikoei ingurumen-ebaluazio sinplifikatua egin behar zaie, ingurumen helburuak baitituzte funtsean. Uholde arriskua kudeatzeko planei banakako ingurumen-ebaluazioa egin behar zaie.
- d) Ingurumen-ebaluazioa egin behar zaie baldin eta egitura-neurriak jasotzen badituzte.

**24. Non zehazten dira Jugalez ibaiaren ezaugarriak eta haren inguruko proposamenak?**

- a) Ebroko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan.
- b) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan.
- c) Ebro Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetako Plan Hidrologikoan.

**25. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen izapidetzea, edukia eta xedapenei dagozkienez, zein da erantzun zuzena?**

- a) Demarkazio Hidrografiko bakoitzeko Plan Hidrologikoei dagozkienekin koordinatu eta uztartu dira, dauden sinergiak aprobetxatzeko eta bi plan horien helburu guztiak lortu ahal izateko.
- b) Ez dira Demarkazio Hidrografiko bakoitzeko Plan Hidrologikoei dagozkienekin batera aztertu, izan ere Europako zuzentarau desberdinetan baitute jatorria.
- c) Ez dira Demarkazio Hidrografiko bakoitzeko Plan Hidrologikoei dagozkienekin batera aztertu, izan ere helburu eta errekerimendu desberdinak baitituzte.
- d) Ez dira Demarkazio Hidrografiko bakoitzeko Plan Hidrologikoei dagozkienekin batera aztertu, errege-dekretu desberdinen bitartez onartzen baitira.

**26. Euskal Autonomia Erkidegoan, 100 urteko errepikatze-denborako uraldien uholde-arriskuko guneetan, non kokatzen da biztanle gehien?**

- a) Araban.
- b) Bizkaia.
- c) Gipuzkoan.
- d) EAEko isurialde mediterraneoan.

**27. Zein da Zadorrako urtegi-sistemaren edukiera erabilgarria?**

- a) 95:hm<sup>3</sup>
- b) 125:hm<sup>3</sup>
- c) 155:hm<sup>3</sup>
- d) 195:hm<sup>3</sup>

**28. Añarbeko urtegiari dagokionez, zein da erantzun zuzena?**

- a) 38 hm<sup>3</sup> inguruko edukiera du eta Donostialdea hornitzen du.
- b) 38 hm<sup>3</sup> inguruko edukiera du eta Donostialdea eta Bidasoa Beherea hornitzen ditu.
- c) 48 hm<sup>3</sup> inguruko edukiera du eta Donostialdea hornitzen du.
- d) 58 hm<sup>3</sup> inguruko edukiera du eta Donostialdea eta Bidasoa Beherea hornitzen ditu.

**29. Uholde-arrisku handiko eremuari buruz, honako hau esaten du Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua:**

- a) Bat dator lehentasunezko fluxu-eremuarekin 100 urtetik gorako errepikatze-denborako uraldian.
- b) Bat dator huste biziko bidearekin 100 urteko errepikatze-denborako uraldian.
- c) Bat dator uholde-arriskugunearekin 10 urteko errepikatze-denborako uraldian.
- d) Eremu horretako lur-sailetan 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak sakonera- eta abiadura-irizpide jakin batzuk betetzen ditu.

**30. Lehentasunezko fluxu-eremua (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua):**

- a) Uholde-arrisku handiko eremutik abiatuta mugatuko da 100 urteko errepikatze-denbora duen uraldirako.
- b) Uholde-arrisku handiko eremuak eta huste biziko bideak bat egiten dutenetik aurrera mugatzen da.
- c) Bat dator uholde-arriskugunearekin 10 urteko errepikatze-denbora duen uraldirako.
- d) Bat dator huste biziko bidearekin 100 urteko errepikatze-denbora duen uraldirako.

**31. 100 urteko errepikatze-denbora duen uraldia, metro 1eko sakonera, korrontearen abiadura 1m/s edo sakonera bider 0,5 m<sup>2</sup>/s abiadura baino handiagoko emaitza. Datu horiekin eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua kontuan hartuta, zer ari gara definitzen?**

- a) Uholde-arrisku handiko eremua.
- b) Lehentasunezko fluxu-eremua.
- c) Huste biziko bidea.
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**32. Jarraian zehaztutako test estatistiko horietatik, zein erabiltzen da serie hidrologikoak banaketa parametrikotik batera doitzearen egokitasuna aztertzeko?**

- a) Legasov testa.
- b) Salvini-Smirnoff testa.
- c) Pearson-en chi-karratua testa.
- d) Gauss-Kendall testa.

**33. 80 metroko zabalera duen ubide laukizuzen batean ur-xaflak 5 metro hartzten baditu, ibilguak % 0,2ko malda badu eta Manning-en koefizientea 0,015 bada, nolakoa izango da husten duen ur-emia?**

- a) 3.000 m<sup>3</sup> inguru, segundoko.
- b) 10.000 litro inguru, segundoko.
- c) 3.000 litro inguru, segundoko.
- d) 30.000 m<sup>3</sup> inguru, segundoko.

**34. Uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 903/2010 Errege Dekretuak...**

- a) Uholde arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko Europako zuzentarauaren transposizioa egiten du.
- b) Uholde arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 3/2009 Lege Dekretua garatzen du.
- c) Uholde arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 6/2010 Legea garatzen du.
- d) Lehentasunezko fluxu-eremua definitzen du.

**35. Hiri-eremuan zubi bat eraikitzeko, zer ezartzen du Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 43. artikulua?**

- a) Oro har, 10 urteko itzulaldiko uhaldiaren orbana libre utzi behar da, eta uren mailatik taularen beheko aurpegirainoko babesa, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izango da 100 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- b) Oro har, huste biziko bidea libre utzi behar da, eta uren mailatik taularen beheko aurpegirainoko babesa, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izango da 500 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- c) Oro har, lehentasunezko fluxu-eremua libre utzi behar da, eta uren mailatik taularen beheko aurpegirainoko babesa, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izango da 500 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- d) Oro har, uholde-arrisku handiko eremua libre utzi behar da, eta uren mailatik taularen beheko aurpegirainoko babesa, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izango da 100 urteko errepikatze-denborako uraldirako.



**36. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 43. artikulua ezarritakoaren arabera, pertsonak eta ondasunak uholdeetatik babesteko egitura-neurrietan, lurraren oinarritzko baldintza urbanizatua denean, zer egingo da?**

- a) Ubideratzea, beti ere nabarmen ezinezkoa ez bada behintzat, hirigunea 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak hartuko duen eremutik kanpo gera dadin diseinatuko da.
- b) Ubideratzea, hirigunea urak hartuko duen eremutik kanpo (500 urteko errepikatze-denbora) gera dadin diseinatuko da, ahal dela, eta nabarmen ezinezkoa ez bada behintzat, 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak hartuko duen eremutik kanpo.
- c) Ubideratzea diseinatzerakoan babes-maila izango da herri baterako, tarte zehatz baterako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak zehaztutakoa.
- d) Diseinatuko den ubideratzean 0,33 baino handiagoa ez den kostu/onura ratioa (inbertsio publikoa kalteak murriztearen aurrean) beteko da.

**37. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa batera aplikatuta, nork baimenduko ditu ur jabari publikoaren polizia-eremutik kanpo urak har dezakeen eremuko erabilerak eta jarduerak?**

- a) Erkidego barneko arroetan Uraren Euskal Agentziak baimenduko ditu, agintaritza urbanistikoak aginduzko txosten loteslea egin ondoren.
- b) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arloko administrazio eskudunek baimenduko dituzte, administrazio hidraulikoak baimena eman ondoren eta ur jabari publikoaren polizia-eremuaren barruan aplikatu beharreko uholde-arriskuaren arloko mugak kontuan hartuta.
- c) Estatuko Administrazio hidraulikoak baimenduko ditu, Uraren Euskal Agentziak proposatu eta agintaritza urbanistikoak aginduzko txosten loteslea egin ondoren.
- d) Egoeraren berezitasunak kontuan hartuta, baimenak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak emango ditu.

**38. Uholde-arriskuaren azterketan eta kudeaketan, zer da ibai-tarte baten arriskugarritasuna?**

- a) Uholde-arrisku gradu jakin baten mendean dagoen biztanle-multzoa.
- b) Uholde-arrisku gradu jakin baten mendean dagoen biztanle-multzoa eta jarduera ekonomiko kaltebera.
- c) 500 urteko errepikatze-denborako uraldiaren mendean dagoen biztanle-multzoa eta jarduera ekonomiko kaltebera.
- d) Denbora-tarte batean uholdea gertatzeko probabilitatea, eta uholdearen ezaugarriak.

**39. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera...**

- a) Ibaia ubideratu egin daiteke 10 urteko errepikatze-denborako uraldiko landa-lurzoruen eremuetan.
- b) Lurzoru urbanizatuan pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren landa-lurzoruko egiturazko-jarduketak, salbuespenez egin ahal izango dira 100 urteko errepikatze-denborako uraldia jasan dezakeen eremuan.
- c) Ibai-tarte bat ubideratzeko plan baten helburuaren definizioan jasota egongo da 500 urteko errepikatze-denborako uraldia hartzea ibilguan eremu urbanizatuan eta 100 urteko errepikatze-denborako uraldiari dagokiona landa-eremuan.
- d) Ikastetxeak, osasun-zentroak, suhiltzaileen parkeak eta poliziaren eta babes zibilaren instalazioak uholdeen mende dauden eremu urbanizatuetan baino ezingo dira kokatu, beti ere 10 urteko errepikatze-denborako uraldien gainera, 10.000 biztanletik gora dituzten guneeetan.

**40. Zadorra ibaiaren arroan, 10 urteko itzulaldiko uhaldi batean, Uribarriko urtegia segundoko 50 m<sup>3</sup> husten hasiz gero, zenbat denborara antzemango da Gasteizko hiri parean?**

- a) Ordu erdi eta ordu beteko tartean.
- b) Hiru eta lau orduko tartean.
- c) Sei eta zortzi orduko tartean.
- d) 10 ordu baino gehiagora.

**41. Ibaizabal ibaiaren arroa, 10 urteko itzulaldiko uhaldi baterako, zein da Basauri parean (itsasadarraren uretan gora) espero daitekeen gehieneko emaria?**

- a) 100 eta 200 m<sup>3</sup> artekoa, segundoko.
- b) 800 eta 1.000 m<sup>3</sup> artekoa, segundoko.
- c) 2.000 eta 3.000 m<sup>3</sup> artekoa, segundoko.
- d) 4.000 m<sup>3</sup> baino gehiagokoa, segundoko.

**42. Presa handi-ren definizio hauetatik zein ez dator jasota Presen eta Urtegien Segurtasunari buruzko Erregelamendu Teknikoan?**

- a) Zimenduetatik neurtuta 15 metro baino gehiagoko garaiera duena.
- b) 10 eta 15 metro bitarteko garaiera izanik, 200 metro baino gehiagoko luzera duena gailurrean.
- c) 10 eta 15 metro bitarteko garaiera izanik, 1 hm<sup>3</sup> baino ur gehiago biltzeko gaitasuna duena.
- d) Zimenduetan zailtasun bereziak dituena edo ez ohiko ezaugarriak dituena, dimentsioa edozein dela ere.

**43. Urtegi bat apurtzeak sorraraz ditzakeen arriskuak aztertu eta lurraldea zonifikatze aldera, zeri deitzen zaio “urpean maiz gera daitekeen eremua”?:**

- a) 50 urteko errepikatze-denborako uraldiak hartzen duena.
- b) 50 eta 100 urte bitarteko errepikatze-denborako uraldiak hartzen duena.
- c) 50 urteko errepikatze-denborako uraldiak hartzen duena, gutxienez 1 metroko sakonerarekin edo 1m/s abiadurarekin edota balio horien produktua 0,5 edo hortik gorakoa bada.
- d) Gutxienez 1 metroko sakonerarekin edo 1m/s abiadurarekin urak hartzen duena 100 urteko errepikatze-denborako uraldian.

**44. Uholde arriskua dagoenean aplikatzekoa den babes zibila planifikatzeko oinarritzko jarraibidearen arabera, presa baten larrialdi-planak dira:**

- a) Nahitaezkoak presa handi guztietarako, eta edukia bera da.
- b) Nahitaezkoak presa handi guztietarako, eta edukia aldatu egiten da kategoriaren arabera.
- c) Nahitaezkoak A eta B kategorietako presetarako.
- d) Nahitaezkoak A kategoriako presetarako bakarrik.

**45. Urtegien segurtasunaren araberako arriskuen analisi-prozesuetan, jarraian adierazitako baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**

- a) Akats-modu desberdinak identifikatzea arrisku-eredua sortze aurretiko urrats bat da.
- b) Gain-isurketaren ondoriozko akatsa uraldiaren urtegirako sarrera-hidrogramarekin kalkulatu da.
- c) Aditu-irizpidearen araberako balorazio-metodoa ezin da onartu, ez du-eta oinarri zientifikorik.
- d) Nazioartean onartuta dauden toleragarritasun-irizpideak modu sistematikoan aplikatu daitezke baliokide gisa ustiapenean dauden, egiten ari diren edo proiektuan dauden urtegiengan.

**46. Euskal Autonomia Erkidegoan ustiapenean dagoen urtegi bateko larrialdi kasu batean, nork deklaratu du Larrialdietako Planaren 1. egoera?**

- a) Urtegia husteko batzordearen lantalde iraunkorrak.
- b) Gobernu Zentralak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritzaren tituluak.
- c) Eusko Jaurlaritzan Babes Zibilaren eginkizuna atxikita duen sailburuak.
- d) Larrialdietako Planaren zuzendariak.

**47. Bioingeniaritzako teknika bat hautatzeko, zeintzuk dira parametro hidraulikoak?**

- a) Abiadura, ertzetako tentsio tangenziala eta sakonera.
- b) Ohiko emaria eta batez besteko urteko emaria.
- c) Arroaren malda eta emaria 100 urteko errepikatze-denborako uraldietarako.
- d) Ez dute zerikusirik aldagai hidraulikoekin, ur-bazterreko landarediaren egoeraren arabera dira.

**48. Zer da Itsasoko eta lehorreko jabari publikoko babes-zortasuneko eremua?**

- a) Jabari publiko hidraulikoaren ondoko lurralde-eremu osoa mugatzen du itsas mailaren gainetik 5 metroko kotara arte.
- b) Jabari publiko hidraulikoaren mugaketatik lehorren aldera neurtutako 6 metro zabaleko zerrenda bat.
- c) Oro har, jabari publiko hidraulikoaren mugaketatik lehorren aldera neurtutako 100 metro zabaleko zerrenda bat.
- d) Itsasertzaren barruko mugatik lehorren aldera neurtzen den eremua.

**49. Deflektore izeneko egiturak, zertarako jartzen dira?**

- a) Arroaren malda gutxitzeko, eta, hortaz, uraren abiadura ere bai.
- b) Olio- eta hidrokarburo-geruzak atxikitzeke ibaian gora estalduretan edo zubietan.
- c) Korrontearen abiadura gutxitu nahi den sekzioetan jartzen dira, higadura mugatzeko.
- d) Tamaina handiko flotatzaileek Ibaiertzen kontra talka egin ez dezaten.

**50. Egur-hesi bizia bioingeniaritzako teknika bat da:**

- a) Higaduraren mende dagoen eta kurbadura kaltegarria erakusten duen ibaiertz baten leheneratze linealerako erabiltzen da.
- b) Ibilgu txirikordatua duten ibaien ertz oinak egonkortzeko erabiltzen da.
- c) %20 baino gutxiagoko malda duten ezpondetan baino ezin da erabili.
- d) Egokia da malda altua eta lurzoru trinkoa duten ibaiertzetarako.

**51. 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, erabat deusezak dira honako egintza hauek:**

- a) Ahozko administrazio-egintzak.
- b) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz ematen diren administrazio-egintzak.
- c) Epez kanpo emandako administrazio-egintzak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**52. Lan-arriskuen prebentziorako Legearen arabera, Segurtasun eta Osasuneko Batzordea eratuko da enpresak edo lantokiak baldin baditu...**

- a) 30 langile baino gutxiago.
- b) Gutxienez 30 langile.
- c) 51 langile edo gehiago.
- d) Gutxienez 50 langile.

**53. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioetarako, noiz dago ordezkartza orekatua pertsona anitzeko administrazio-organotan?**

- a) Sexu biek % 50eko ordezkartza dutenean.
- b) Sexu biek % 40ko ordezkartza baino handiagoa dutenean.
- c) Sexu biek % 45eko ordezkartza dutenean, gutxienez.
- d) Sexu biek % 40ko ordezkartza dutenean, gutxienez.

**54. Datuen tratamendurako arduradunek eta eragileek, bai eta tratamenduaren edozein fasetan esku hartuko duten pertsona guztiek ere, honako betebeharrak daukate:**

- a) Zaintza.
- b) Arreta.
- c) Konfidentzialtasuna.
- d) Isiltasuna.

**55. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legearen arabera, nola egongo dira idatzita kale-bideetan jarritako bide-seinale eta mezuak?**

- a) Hizkuntza ofizial batean.
- b) Euskaraz soil-soilik.
- c) Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

## **ORDEZKO GALDERAK**

**56. Jarraian adierazitako eremuetatik zein dago batez ere urgondar arrezife-kareharriz osatua?:**

- a) Igeldo.
- b) Barrikako flyscha.
- c) Urkiola.
- d) Gesaltza-Añanako diapiroa.

**57. Jarraian adierazitakoetatik, zein da Uraren Esparru Zuzentaraia?**

- a) 2007/60/EE
- b) 2007/91/EE
- c) 2005/60/EE
- d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

**58. Zeintzuk dira plangintza hidrologikoaren helburuak eta irizpideak?**

- a) Urak egoera onean mantendu eta babestea lortzea.
- b) Eskariak hornitzea eta uraren erabilera arrazionalizatzea.
- c) Uholdeen eta lehorteen ondorioak murrizten laguntzea.
- d) Aurreko guztiak.

**59. Zein baieztapen dagokio ibaiertzeko berezko landarediari?**

- a) Ur ibilguen mikroklima erregulatzen du.
- b) Ur-bazterren egonkortasuna bermatzen du.
- c) Inguruko nekazaritza jardueratik datozen nutrienteen iragazki bihurtzen da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**60. Zein da Natura 2000 Europako Sare Ekologikoari buruzko baieztapen zuzena?**

- a) Sare ekologiko koherentea da eta honako hauek osatze dute: Garrantzi Komunitarioko Lekuek (GKL), Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bihurtu arte, KBE horiek eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek (HBBE).
- b) Sare ekologiko koherentea da eta honako hauek osatze dute: Garrantzi Komunitarioko Lekuek (GKL) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek(HBBE).
- c) Sare ekologiko koherentea da eta honako hauek osatze dute: Kontserbazio Bereziko Eremuek (KBE), Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek (HBBE) eta nazioarteko tresnen babesa duten naturagune babestuek.
- d) Kontzeptu horren ordez, Europako araudiak Natura 2020 Europako Sare Ekologikoa jaso berri du, Europako Batzordeak 2020ra begira duen estrategiarekin bat etorrira.